

EMAKUMEZKO JOKALARIEN NAFARROAKO XAKE TXAPELKETA.

2008.go martxoaren 20an, 21ean eta 22an jokatu zen Orvina taldearen lokalean. Lau jokalaria aritu ziren, Liga batean (iaz baino 2 gutxiago). Jokalari bakoitzak ordu bat eta erdi izan zituen 30 jokaldi egiteko eta ordu bat gehiago partida amaitzeko.

AZKENEKO SAILKAPENA.

- 1) **Amaia Iza Abete – 2'5 puntu.**
- 2) Marina Sevilla Subiza – 2'5 puntu.
- 3) Andrea Garcia Mina – Puntu bat.
- 4) Estela Lopez Nicolas – 0 puntu.

Amaia Iza Abetek bere titulua berreskuratu zuen, urte bateko atsedena hartu ondoren (iaz Maite Serrano Alonso geratu zen txapeldun).

Amaia Iza Orvina taldean jokatzen du, 2.036 puntu ditu FIDE ELOan, 1.967 Euskal ELOan eta 1.867 Nafarroako ELOan.

Marina Sevillak ez zion erraz jarri eta titulua partida azkarretan erabaki zen. Iaz, Marina Sevillak bosgarren postua lortu zuen.

Andrea Garcia Minak hirugarren postua erdietsi du, orain dela 2 urte bezala (iaz txapeldunordea izan zen).

2008-03-22.

Iturria: Nafarroako Xake Federakundea.